

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Leioako Udala****Lehiaketa publikoaren bidez BOEko etxebizitza-blokean dauden (Elexalde etorbidea, 2-10) 99 aparkaleku-plazaren azalera-eskubidearen kontratazioa.**

Hona hemen prozedura honen oinarrizko datuak:

— *Erakunde esleipenduna*

- a) Erakundea: Leioako Udala.
- b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Leioako Udaleko Kontratazio Saila.
- c) Espediente-zenbakia: 28/2017 kontratazio espedientea.

— *Kontratuaren xedea*

- a) Deskribapena: Lehiaketa publikoaren bidez BOEko etxebizitza-blokean dauden (Elexalde etorbidea, 2, 10) 99 aparkaleku-plazaren azalera-eskubidearen kontratazioa.
- b) Lotekako eta zenbakikako banaketa: Ez.
- c) Egiteko tokia: Leioako Udala.

— *Esleipenaren izapidetzea eta prozedura*

- a) Izapidetzea: Arrunta.
- b) Prozedura: Lehiaketa publikoa.

— *Lizitazio-oinarriaren aurrekontua*

75 urteko azalera-eskubidea milioi bat zazpiehun eta hamazazpi mila bederatziehun eta hirurogeita zortzi (1.717.968,68) euro zebatesten da, metro karratu erabilgarri kopurua Udal Bulego Teknikoak egindako balioespenaren arabera metro karratuko biderkatuz lortzen dena (2.927,84 m² erabilgarri x 586,77 euro/m² erabilgarri).

— *Esleipena egiteko oinarri izango diren irizpideak*

Gehienezko puntuazioa 100 puntu, eskainitako prezioaren arabera, gainontzeko eskaintzak alderantziz proportzionala den hiruko erregelaren bitartez puntuatuko dira. Azalera-eskubidearen eskualdatze-prezioa, eskainitako metro karratuko prezioa eta aukeratutako partzelako azalera biderkatuz lortuko da.

— *Behin-behineko bermea*

Behin-behineko bermea aurkeztutako eskaintza bakoitzeko 50 euro izango da. Behin-behineko bermea Udal Diruzaintzan eratuko da honako modu honetakoren baten:

- a) Eskudirutan.
- b) Banku-transferentziaren bitartez udalt titulartasuneko kontu honetara: ES81-2095-0048-2020-4801-8741.
- c) Espainian jarduteko baimena duen edozein banketxek, aurrezki-kutxak, kreditu-kooperatibak, kredituko finantza-establezimenduk eta elkarrekiko berme-sozietatek emandako abalaren bitartez.

— *Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea*

- a) Erakundea: Leioako Udala. Herritarren arretarako zerbitzua eta Kontratazio Saila.
- b) Helbidea: Elexalde, 1, 1. solairua.
- c) Herria eta posta kodea: Leioa-48940.
- d) Telefonoa: 944 008 025.
- e) Faxe: 944 649 058.
- f) Helbide elektronikoa: erosketak@leioa.net



- g) Agiriak eta informazioa eskuratzeko epe-muga: Kontratazio organoak, eskaintzak jasotzeko azken eguna baino zortzi egun lehenagora arte eta posta elektronikoz (erosketak@leioa.net) agiri edo dokumentazio osagarriari buruzko informazioa emango die interesatuei, behar bezalako aurrerapenez eskatuz gero; horretarako astelehenetik ostiralera deitu ahal izango da, 8:30etik 13:30etara, telefono honetara: 944 008 025.

— *Kontratastaren berariazko betekizunak*

- a) Sailkapena: Ez da eskatzen.
b) Kaudimen ekonomikoa, finantziario eta tekniko edo profesionalaren gutxieneko eskakizunak: Ikusi baldintza-agiria.

— *Eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkezteko*

- a) Aurkezteko epe-muga: 30 egun natural iragarkia Bizkaiko Agerkari Ofizialean argitaratzen denetik. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata igandea edo jaieguna balitz hurrengo lehen lanegunera luzatuko litzateke epea.

- b) Aurkeztu beharreko agiriak: Ikusi baldintza-agiria.

- c) Aurkezteko tokia:

- 1) Erakundea: Leioako Udala-Erregistro Orokorra, goizeko 8:30etatik eguerdiko 14:30etara eta urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten den edozein erregistrotan.
- 2) Helbidea: Elexalde, 1.
- 3) Herria eta posta kodea: Leioa-48940.

— *Lizitatzailleak eskaintza mantentzeko ezarritako epea*

Ez da ezarri.

— *Aldaerak onartzea*

Ez.

— *Parte hartzeko eskabideak aurkezteko modua*

Ikusi baldintza-agiria.

— *Eskaintzak irekitzea*

- a) Erakundea: Leioako Udala.
b) Helbidea: Elexalde, 1.
c) Herria eta posta kodea: Leioa-48940.
d) Data eta ordua: Interesdunei data eta ordua jakinaraziko zaie.

— *Bestelako argibideak*

Ikusi Administrazio klausula eta preskripzio teknikoaren baldintza-agiria.

— *Baldintza-agiriak eskura jartzen dituen atari informatikoa edo webgunea*

http://www.leioa.eu/es/perfil_contratante.html

Leioan, 2017ko urriaren 16an. — Alkatea, M.^a Carmen Urbieta González